eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# EUSKAL ALBUMAK AZTERTZEN (2015-2017)

## GRADU AMAIERAKO LANA


EGILEA: Gallastegui Bilbao, Julene.

ZUZENDARIA: Arnal Gil, Txabi.


**2018/2019**

# AURKIBIDEA

LABURPENA ..... 2

RESUMEN ..... 2

0. SARRERA ..... 3

1. MARKO TEORIKOA ..... 3

1.1. Haur Literatura ..... 3

1.2 Albuma ..... 4

1.2.1. Definizioa ..... 4

1.2.2. Ibilbide historikoa ..... 7

1.2.3. Osagaiak ..... 8

1.2.4. Irakurlea ..... 10

1.2.5. Albuma nola irakurri ..... 11

1.2.6. Albumaren onurak ..... 13

1.2.7. Albuma eta Haur Hezkuntza ..... 14

2. HELBURUAK ..... 14

3. ANALISIRAKO METODOA ..... 15

3.1. Ikerketa tresna ..... 15

3.2. Korpusa ..... 20

4. ANALISIAREN EMAITZAK ..... 22

5. ONDORIOAK ..... 29

6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK ..... 32

7. BIBLIOGRAFIA ..... 33

7.1. Aztertutako korpusa ..... 36

8. ERANSKINAK ..... 37

# LABURPENA

Lan honen helburua kalitatezko eta eguneratutako album-korpus bat eraikitzea eta ikerketa tresna baten bidez aztertzea da. Ikerketa tresna hori sortu ahal izateko marko teoriko bat garatu behar izan dugu, haur literaturaren eta albumaren inguruko bilaketa bibliografiko bat eginez eta zenbait teoria bilduz. Besteak beste, albumaren osagaiak, onurak eta irakurlearekin duen harremana azaltzen dira bertan. Marko teorikoa osatu eta helburuak finkatu ondoren, analisirako metodoa garatu dugu helburuen araberako ikerketa tresna sortuz. Emaitzak lortzeko, korpusa aztertu dugu aurretik ezarritako irizpideekin. Korpus hori 2015-2017 urteetan argitaratutako albumek osatzen dute, Mondragon Unibertsitateak argitaratutako irakur gidak kontuan izanda. Ateratako ondorioak aurkeztu eta etorkizunera begiratuz, lan hau hobetu edota garatzeko proposamenak egin ditugu.

**Hitz gakoak:** Haur literatura, albuma, albumaren osagaiak, haur hezkuntza.

# RESUMEN

Este trabajo tiene como objetivo formar un corpus de álbumes actual y de calidad y analizarlo mediante una herramienta de investigación. Para poder crear esa herramienta, hemos completado un marco teórico haciendo una busqueda bibliografica sobre el álbum y la literatura infantil, y recopilando diferentes teorias al respecto. El marco teórico informa sobre los elementos del álbum, sus beneficios y la relación con el lector. Una vez definidos el marco teórico y los objetivos, hemos desarrollado el método de análisis en función de los objetivos. Para obtener los resultados, nos hemos centrado en analizar el corpus creado anteriormente, según los criterios establecidos. Dicho corpus está formado por los álbumes mencionados en las guías de Mondragón unibertsitatea de 2015 a 2017. Teniendo en cuenta los resultados obtenidos y las conclusiones extraidas, hemos hecho diversas propuestas para mejorar o enriquecer este trabajo.

**Palabras clave:** Literatura infantil, álbum,elementos del álbum, educación infantil.

# 0. SARRERA

Kontuan izanda irakurketak duen garrantzia, eta era berean gure gizartean duen egoera tamalgarria, ezinbestekoa da irakurketa sustatzeko eta haurrari momentu onak bermatzeko material egokiak erabiltzea. Horretarako, azken urteetan horren arrakastatsuak diren albumak aztertzea erabaki dugu, albumaren ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko eta ze onura eta erabilgarritasun dituzten aztertzeko.

Hasteko, esan beharra daukagu, Lehen Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana egin nuenean, irakurketa eta idazketa prozesua aztertu ahal izan nituela, praktikak egin nituen ikastetxean oinarrituta. Lehenengo zikloan burutu nituen eta nahiko metodo tradizionalean lan egiten zuten ikasgela hartan. Gainera, erabiltzen zituzten liburuak ez zeuden eguneratuak eta asko bilduma baten parte ziren, hau da, denek zuten antzeko egitura. Hori horrela izanik, klase horretara liburu mota desberdinak eramatea erabaki nuen eta albumenganako interesa piztu zitzaidan, oso baliagarriak iruditu zitzaizkidalako.

Gure asmoa euskarazko albumak aztertzea izan da Haur Hezkuntzan asko erabiltzen den generoa delako. Oso erabilgarriak dira haurrentzat, erakargarriak eta deskodifikatzen ez dakiten irakurleentzat egokiak. Irudien bidez irakurtzeko aukera ematen diete irakurketa prozesura gerturatuz eta erraztuz. Gainera, ez dira geldoak izaten eta beharrezkoa denez irudietan arreta jartzea istorioa osatzeko, errazago egiten zaie arreta jartzea.

# 1. MARKO TEORIKOA

## *1.1. Haur Literatura*

Nahiz eta albuma adin guztietako irakurleentzako izan, haur literaturaren barruan ere badago eta horregatik ezinbestekoa da haur literaturaren ibilbidea azaltzea eta definitzea. Haur literatura nahiko berria den fenomenoa da eta jatorri herrikoiko maitagarrien ipuinen aldaketekin hasi zen. Hala ere, ez zen XIX. mendera arte finkatu, aurretik haurrentzako gauzak idatzi ziren arren. Izan ere, idazten den guztia ez da literatura eta hori gertatzen zen haurren kasuan ere, beraientzako

zuzendutako liburu gehienak didaktikoak edo moralizatzaileak baitziren (Cervera, 1989).

Hasieran ez zen haurren eta helduen arteko desberdintasunik ikusten, baina Europan XVIII. mendean haurraren eta helduaren nozioa bereizi ahala, haurrentzako liburuak behar zirela ikusi zen hezkuntza munduan eta liburu didaktikoak sortzen hasi ziren. Gerora XIX. mendean literaturan eman zen pausua haurren eta helduen arteko literatura bereiziz umeak eskolaratzearekin batera. (Silva-Diaz, 2005).

Bereizketa horrekin eman zen literaturatik haur literaturarako saltoa, izan ere, Bortolussik (1985) dioen bezala, haur literatura haurrarentzat idatzitako literatura da, haurra hartzaile izanik. Hala ere, helduen literaturarekin gertatzen ez den bezala, haurrei zuzendutako liburuak helduentzat ere izan daitezke, hauen interesa piztuz eta hunkitzera iritsiz (Tejerina, 1994).

Juan Cerveraren (1989) hitzei erreparatuz berriz, haur literaturaren kontzeptuak izaera integratzaile eta selektiboa izan behar du. Eta bertan barneratuko dira hitza oinarri bezala duten ekintza eta adierazpenak, haurren intereseko helburu artistiko eta ludikoekin.

Haurrei zuzendutako literatura denez, ezin da edonolakoa izan, literatura izateaz gain, ezaugarri zehatz batzuk izan behar ditu, haurrek oraindik ez dituztelako guztiz garatuak errealitatearen pertzepzioa eta egitura linguistiko, intelektual eta afektiboak (Soriano, 1975). Testua laburra izan behar da, protagonista umea ala gaztea izaten da gehienetan, eta ekintza eta elkarrizketa asko agertzen dira, arina izan dadin. Horrez gain, egitura klasikoa izaten du eta hizkuntza egokian egoten da idaztia. Eta azkenik, baikorra eta moralizatzailea izaten da, magiaz, fantasiaz eta abenturaz baliatuz (McDowell, 1973).

## *1.2 Albuma*

### 1.2.1. Definizioa

Albuma nahiko berria eta berritzailea da eta asko dira albuma definitzen duten autoreak. Denek ez dute ildo bera jarraitzen definizioa sortzerako orduan, aspektu desberdinetan zentratzen baitira. Hori horrela izanik, ondorengo lerroetan, zenbait autoreren lanetatik berreskuratutako definizioak bilduko ditugu, albumaren definizio osoago bat lortu ahal izateko.

Albuma definitzerako orduan, bi bide aurki ditzakegu, alde batetik, propietate fisikoak behatuz eta, bestetik, literatura eta haurtzaroa kontuan harturik. Propietate fisikoak kontuan izan ezkero, normalean liburu saltzaileen eta editoreen artean honela definitze da albuma: tapa gogorreko liburua, formatu handia duena, ilustrazioz betea, eta irakurle txikienentzat egokia (Duran, 2008). Fokua literaturak haurrengan duen eraginean jarri ezkero, literaturaren historiako artefaktu berria dela esan dezakegu, literaturari ekarpen garrantzitsu eta esanguratsu bat egiten diona (Lewis, 1990).

Duranek (2008) Van der Lindenen (2006) hitzak eraldatuz sortutako definizioak zera dio: albuma testuaren (egon ezkero) eta irudiaren arteko interakzioa irudikatzeko forma bat da, errepresentazio hori liburu baten barruan ematen da, liburua interakzio horren euskarri bihurtuz. Albumaren ezaugarri batzuk, orrialdeen antolaketa librea, material anitzen erabilpena, eta orrialdeen eta irudiaren eta testuaren arteko segida naturala eta koherentea dira.

Album bat gaitasun narratiboa duen objektu artistikoa ere bada, irudiaz eta hizkuntza idatziaz baliatuz eratua dagoena. Irudiari eta testuari dagokienez, beraien arteko lotura eta elkar menpekotasun dialogikoa daukate, kode linguistiko eta bisuala behar baitira esanahi narratibo eta emozionalak eraikitzeko. Era berean plano narratibo desberdinen aldiberekotasuna, sintesi gaitasuna, errealitatearen ikuspegi desberdinak, lantzen den gaiaren inguruko erlatibitatea eta, batez ere, irakurlearekiko harreman aktiboa sortuko dira albumaren bidez. Irakurlea izango baita esanahiak sortuko dituena plano desberdinak erabiliz (Fajardo, 2014).

Albumek sintesirako joera izaten dute, gauzak modu errazean kontatuz. Gainera ezinbestekoak diren bi kode ditu, ez baitago istorioa irudi gabe ulertzerik ezta testu gabe ere, elkarmenpekotasuna izaten dute eta irakurlea izango da biak lotuz esanahia aterako duena (Hanán, 2007).

Esan bezala, uneoro dago testuaren eta irudiaren arteko harremana eta biek dute balio bera, batak ez baitu zentzurik bestea gabe. Baina harreman horiek ez dira beti berdinak izaten. Irudiaren eta testuaren arteko harremanak hiru mota desberdinetan bereizi genitzake Obiols-en (2004) arabera: eginkizunak banatzea edo simetria harremana, hedapen erlazioa edo irudiak hitza osatzen duen harremana, eta, azkenik, harreman ironikoa, erlazio kontraesankorra mantentzen duena hitzaren eta irudiaren artean.

Genero indartsu eta sormenez beterikoa da, irudiaren eta idatziaren arteko lotura berezia duena, irudiek letrek ematen ez dizkiguten datuak ematen baitizkigute eta alderantziz, elkarri sentsua emanez. Ilustrazioak, testuak, diseinuak eta albumaren edizioak bat egiten dute estetikoki eta baita istorioari sentsua ematerako orduan ere (Bajour eta Carranza, 2003).

Irudiaren eta grafiaren arteko harremana albumaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat den arren badira beste bi ere oso garrantzitsuak direnak Zapiraín eta Gonzálezen (2010) ustetan. Albumak betetzen duen eginkizun estetikoa, alde batetik, eta liburu-objektu izateko duen aukera, bestetik.

Album batek estruktura narratologikoa dauka, osatzen duten zati guztiekin zerbait kontatzen baitigu. Benetako albumetan, albuma osatzen duten osagaietako bat ere ez da doakoa. Elementu bakoitzak bere balioa dauka. Editorialen ikuspuntutik albuma, irudiak, testuak eta diseinu grafikoak esku hartzen duten liburua da (Hanán, 2007).

Fajardok (2014) esan bezala, albuma postmodernitate garaietako produktu adierazgarrienetako bat da irakurlea parte hartzaile egiten baitu esanahiaren eraikuntzan. Egungo egoerara egokitutako generoa da, irakurketan mundu bisuala ezinbestekoa bilakatuz. Objektu kulturala da, liburuen munduari bultzada bat eman dion generoa, gizartean eta gure kulturan irudiak duen garrantzia eta eragina kontuan hartu eta horrekin bat egin duena. Testuaren eta irudiaren baturarekin sortzen den produktu narratibo bat da, non ilustratzailearen eta idazlearen paperak fusionatua egon behar duten. Narrazio hau estruktura sekuentzialean dago osatua eta irudiek ezinbesteko papera daukate istorioaren erritmoan (Pardo, 2009).

Irudiaren funtzioari dagokionez, esan beharra dago ilustrazioen bidez sekuentzia bat osatzen dela, honekin, istorioa kontatuz. Alfabetatze bisualean eragiten die irakurleei irakurketa aktibo eta parte hartzaile bat bultzatuz. Obiols-ek (2004) dioen bezala, ilustrazioa lengoaia artistikoa da eta testua azaldu eta argitzen laguntzen du, bere funtzio estetikoa eta estilistikoa ahaztu gabe, lan ederrago eta elaboratuago bat eginez. Era berean, funtzio hauei esker, ilustrazioa komunikazio iturri bihurtzen da testuaren beharrik izan gabe. Honek ilustrazioari garrantzia handiagoa ematera bideratzen gaitu, batzuetan testuaren gainetik jarriz, ilustratzailea izango baita liburuaren estilo eta itxura zehaztuko dituena.

Irakurle askok aukeratzen dute irakurriko duten liburua ikusten dutenaren arabera, eta albumen kasuan argi dago oso erakargarriak izaten direla. Oso garrantzitsua da azalak adierazten diguna, hori izango baita liburu bat aurkeztuko diguna. Tapa eta ipuinaren hasiera eta amaiera bitartean dauden orri zuriak ere oso garrantzitsuak dira. Albumaren kasuan, hauek ez dira orri zuri hutsak izaten. Hauetan istorioari buruzko pistak izaten ditugu, edo istorioarekin hasteko prestatzen gaitu (Hanán, 2007).

### 1.2.2. Ibilbide historikoa

XVIII eta XIX. mendeetako liburu edizio batzuk gaur egungo albumen aurrekari bezala hartzen dira. Randolph Caldecott ilustratzailea albumaren agerpenean garrantzitsutzat hartzen da, berak testuaren eta irudiaren arteko lotura ezartzen duelako, gerora agertuko den interrelazioari bidea eginez. Irudiek indar handia daukate haurrekiko eta beraien psikean eragiten dute

Hoffmanen (1845) *La historia de Gaspar sopas* lanean, adibidez, irudiei erreparatu ezkero konturatu gaitezke ez direla irudi soilak, testuarekin erlazionatuta baitaude. Gainera, diseinuari dagokionez, espazio handia hartzen dute istorioaren esanahia eraikitzen lagunduz. Irudiak ez dira apaingarri gisa agertzen ezta testuaren itzulpen soil bezala ere, hauen funtzioa bestelakoa da: irakurketari beste ekarpen bat egitea. Hala ere, XIX. mendean albumaren aitzindari asko egon diren arren, albuma produktu berria dela esan dezakegu (Hanán, 2007 ).

Garai batean haurrentzako liburu gehienak txikiak izaten ziren, Perraulten istorioak kontatzen zituzten chapbooksak adibidez. Baina albumetan ez da hori gertatzen. Albumak tamaina desberdinetakoak izaten dira eta posibilitate desberdinekin jolastuz osatuta daude. Koloreak ere badauka zer esana albumak bezalako liburuetan, izan ere, aurreko garaietan liburu gehienak kolore gabeak ziren eta koloredunak eskuz margotuak izaten ziren, ez baitzegoen gaur egun bezalako inprimaketarik. Gaur egun, erreminta ugari daude album originalak sortzeko, koloreztatzeko eta baita efektu desberdinak sortzeko ere. Editatzeko modu asko daude, tamainaren eta erabiltzen den paper motaren araberakoak hauetako batzuk, karratu tamainako albuma, laukizuzena edo argazki motakoa (portrait), apaizatua eta lauak (Hanán, 2007).

Azken urteetan ikus-entzunezkoek duten eragina ikusita, liburuak bigarren plano batean geratzen dabiltza eta albumak horri buelta emateko tresna ezin hobeak

dira. Albumen bidez irudiak duen indarra aprobetxatzen da, gure kulturan irudiak duen garrantzia kontuan hartuta. Bi kodeak barnebilduz egungo egoera ulertuz, esperimentazioa bermatzen duen genero literario berria da (Bajour eta Carranza, 2003).

### 1.2.3. Osagaiak

Albuma zer den definitu ostean, album batek ezinbestean izan behar dituen osagaiak zeintzuk diren aipatu beharra dago. **Paratestuek** esaterako zer esan handia izango dute istorioa osatzeko unean, osotasunean izango baita narrazio elementu bat, osatzen duten elementu guztiekin zerbait kontatuz. Albumaren zati bakoitzak dauka bere esanahia eta balioa, ez dago esanguratsua ez den elementurik istorioa ez baita testuan soilik kontatzen, orriz orri kontatzen den zerbait da; irudi, figura, forma, tamaina, kolore etab.-en bidez (Cubillos, 2017).

**Azalaren** eta **kontrazalaren** papera, adibidez, funtsezkoa izango da irakurlea erakartzerako orduan, askotan azala izaten delako ume batek liburu bat hartzearen edo ez hartzearen zergatia. Azala izango da albuma aurkeztuko diguna eta garrantzitsua izango da erakargarria izatea. Kontrazalaren funtzioa ere esanguratsua izango da istorioari bukaera emateko, **Izenburuaren** kasuan, deigarria izan beharko da, grafia egokia erabiliz irakurlea bereganatzeko (Hanán, 2007). **Guardek** beste liburuetan ez bezala, istorioaren aurre ideia batzuk helarazteko erabiltzen dira, edota kontakizunean sartzeko pista batzuk emanez. Irakurlea istorioarekin hasteko prestatzen du, espektatiba batzuk eraginez eta egoeran jarriz ikusizko elementuen bidez. Osagai hauek hasiera batetik historian sartzen gaituzte, etorri daitekeena imajinatuz, gertatuko denari aurre hartuz eta egongo diren pertsonaiak, guneak edo egoerak aurreikusiz (Cubillos, 2017).

**Koloreen** bidez irakurlea istorioaren barnean sartzea lortuko da, emozio batzuk sentiaraziz eta kontakizunaren araberako atmosfera bat osatuz. Horretarako, gaiaren arabera kolore batzuk edo beste batzuk erabiliko ditu ilustratzaileak, kolore ilunak, biziak edota leunak, esaterako. Kolore gabeko albumak ere badaude. Pasarte edo gertakizun batzuei enfasia emateko ere koloreekin jolasten dute, tonuak aldatuz, irudi batzuei distira emanez edo itzalak sortuz. Kolorerik gabeko albumetan, ordea, izan daiteke enfasia emateko kolore pixka bat sartzea, espresioaren pisua koloreari emanez. Koloreak garrantzia handia du albumetan batzuetan protagonista izatera iritsiz.

Enfasia emateko edo haurren arreta lortzeko beste modu bat **ehundura** edo erliebe desberdinak erabiltzea da. Albuma liburu dinamikoa izanik, zentzumen ezberdinak erabiltzea eskatzen digu, testua irakurri edo entzunez, ilustrazioak behatuz eta orrialdeak pasa ahala ehundura desberdinak ukituz. Haur hezkuntzako haurrei askoz erakargarriagoak egingo zaizkie ehundura desberdinak dituzten albumak beraiek esperimentatu eta manipulatzeko. Izan ere, ukimenak babes informazioa emateaz gain, informazio deskribatzailea ematen du, eta haurtxoek asko ikasten dute haren bidez (Ayres, 2006).

Ilustrazioek testuak besteko garrantzia daukate albumetan, lotuta joaten dira eta bien artean osatzen dute istorioa. Baina kasu batzuetan testua inplizitua ere izan daiteke Iela Mariren (1996) *El globito rojo* albumean bezala. Hitzik gabeko albumetan irudiek daramate narrazioaren indarra irudien sekuentziazioari esker. Sekuentziazio hori formen bariazioarekin eta elementu lineal batzuen bidez lortzen da (Vásquez, 2014).

Hitza dagoen albumetan, berriz, zer esan handia izaten du hitzak eta testua idazteko moduak. **Grafiak** ere eraikitzen du istorioa, narrazio elementu bat da eta erabilera estetikoa ere izan dezake. Album batean era askotako grafiak erabili daitezke funtzio desberdinak izan baititzake. Asko jolasten da grafia motarekin, eta batzuetan irudi esanguratsuekin nahastuta ere aurki dezakegu testua, hitzaren eta ikonoaren arteko jolasaren bidez, *Le secret* (Battut,2004) albumean gertatzen den bezala (Tabernero, 2011).

Nahiz eta batzuetan grafiak ez duen funtzio berezirik izaten, askotan erabiltzen dira letra mota edota tamaina desberdinak enfasia emateko. Tamaina aldaketekin, hurbiltasun edota urruntasun sentsazioak nahiz entonazio desberdinak egitea transmititzen zaizkio irakurleari. Beltzitutako letrak erabiltzea ere ohikoa izaten da irakurlearen arreta bereganatzeko. Beste funtzio bat funtzio deskriptiboa da, handia den zerbaitetaz ari garenean letra larria erabiliz esaterako (Vásquez, 2014). Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremanak ere ez dira beti berdinak izaten album guztietan. Batzuetan bereizita egoten dira bakoitzak orrialde bat harturik, beste kasu batzuetan, berriz, orrialde berdinean egoten dira bateratuta baina nahastu gabe, eta nahastuta egoten diren albumak ere badaude. Kasu hauetan biek hartzen dute espazio berdina, grafia ilustrazioaren parte izanik.

**Albumaren dimentsioek** markatzen dute irakurlearen esparru bisuala, formatoaren eta albumaren edukiaren arteko erlazioa sortuz. Normalean dimentsio txikiko formatuarekin irakurlearekiko harreman intimoago bat lortzen da. Egokia izango litzateke lehenengo pertsonan idatzitako kontakizunentzako, irakurlearen eta albumaren arteko sekretu konnotazioa sortzeko, edota fikziozko munduan kokatutako istorioentzako. Formatu txikiak konplexutasun handiko ilustrazio miniaturizatuetara eramaten gaitu. Formatu handiekin, aldiz, irakurlearen eta liburuaren arteko distantzia handiagotu egiten da. Formatu honetako liburuak egokiagoak izaten dira taldean ikusteko, ikusgarriagoak izaten baitira, ikasgelan irakaslearekin lantzeko egokiak (Colomer, 1999).

Dimentsioetan banatzeaz gain, badago **formatua** bereizteko beste modu bat: formatu apaizatua, karratua edo berezia. Formatu apaizatua egokia da paisaien eszena desberdinak egiteko edo, zinean deitzen zaion bezala, plano orokor handi bat eskaintzeko. Formatu honetan istorioaren jarraipen bat egiten da ezer utzi gabe (Hanán 2007). Formatu honek albumaren orrialde bikoitzetan espazio dilatatuaren sentzazioa esanguratsua izatea ahalbidetzen du, eta honekin jarraipen espazial bat lortzen da (Diaz eta Duran, 2016).

Formatu karratua 70.hamarkadan hedatu zen formatua da,  gaur egun gehien erabiltzen dena. Kontzentrazio ahalmen gehien duen formatua da. Dituen ilustrazio eta testuan arreta sortarazten duena. Egokia da poema, asmakizun eta joku linguistikoak editatzeko, baina istorio baten narraziorako formatu hau monotonoa izan daiteke. Hori dela eta, formatu karratua duten album askok orrialde bikoitza tartekatuta erabiltzen dute, forma karratua eta aldezuzen horizontala konbinatuz (Colomer, 1999).

Formatu bereizia, aldiz, zehaztu gabeko formatua da, istorioarekin lotura zuzena izaten duena. *La media naranja* (Ferrándiz,2009) albumak, adibidez, borobil erdiaren forma dauka laranja erdia irudikatuz, eta osorik zabaldu ezkero azala eta kontrazala elkartuz laranja osoa lortzen da.

### 1.2.4. Irakurlea

Albuma osatzen duten elementuen arteko interakzioak ez dauka zentzurik hau guztia jasotzeko norbait ez baldin badago. Hartzailea izango da albuma behatu, interpretatu eta baloratuko duena. Albumak, liburu izateaz gain, errepresentazio bidezko komunikazio bide dira eta irakurtzeko beste modu bat eskaintzen digute, aurretiaz ez zegoena ( Duran, 2008).

Hartzaileari dagokionez, askotan haurrentzat direla pentsatu arren, ez da erraza adinka klasifikatzeko erabiltzen diren irizpideak liburu hauekin erabiltzea, ez baitago distantzia handirik haurren eta helduen arteko albumetan. Izan ere, hartzaileek beraiek lortzen dute adinen arteko desberdintasun hori egitea albumari ematen dioten irakurketa planteamenduarekin eta albuma ulertzeko duten moduarekin (Bajour eta Carranza, 2003).

Albumak benetako irakurketa ematea errazten du, izan ere, irakurtzea ez da sinboloen deszifrazioan edo deskodifikazio hutsean geratzen, haratago doan zerbait da. “Leer, más que oralizar, más que decir el texto, es construir un significado personal para la información que vehicula” (Sole´, 2009). Eta albumak irakurlearen rol konstruktiboa eskatzen du, partizipazio aktiboaren eta inteligentearen eta deskodifikazio prozesuaren bidez, albuma osatzen duten osagaien arteko lortura egiteko (Hanán,2007). Gainera, albumetan beti ez dira hitzak idatzita egoten eta oraindik dekodetzen ez dakien haur bati oso baliagarria izan dakioke liburu mota hau irakurri ahal izateko. Albumek eskaintzen dituzten erabilera desberdinek eta irudiek ematen duten jokuak, haurrak dekodetzen jakin baino lehen irakurtzen ikastea dakarte (Bajour eta Carranza, 2003).

### 1.2.5. Albuma nola irakurri

Album bat ez da gainontzeko liburuak bezala irakurtzen. Album batek irakurtzeko era tradizionala alde batera uzten du testuaren eta irudiaren arteko erlazioaren bilaketara bideratuz. Albumaren irakurtzeko modua ulertzeko, kontuan izan behar dira Obiols-ek (2004) aipatzen dituen irudiaren eta testuaren arteko harremanak. **Simetria harremana**rekin albumean zehar istorioa aldi berean kontatuta egoten da irudi eta hitzekin. **Hedapen erlazioa** dagoenean, berriz, lengoaietako batek informazio gehigarria ematen du istorioa osatzeko, eta **harremana kontraesankorra** den kasuetan idatziak eta ikusizko kodeak ikuspuntu desberdinak erakusten dituzte, istorio berdinaren ikuspuntu desberdinak planteatuz.

Hala ere, harreman hauek ezagutzearekin ez da nahikoa izango. Irakasleak album bat irakurtzerako orduan, aurretiazko lanketa bat egin beharko du irakurri beharko dituen albumak aztertuz eta haurrek albuma irakurtzean egingo duten bezala garun lanketa bat eginez, ondoren ikasleak bideratu ahal izateko. Izan ere, irakurzaletasuna bultzatu nahi bada, ezinbestekoa izango da irakurle aritu bat izatea eta haurrei albumaren oinarrizko mezua ez ezik azpian dagoena ere ateratzen

erakustea, testuaren eta irudiaren arteko harremanak sortuz eta ilustrazioen barrenera arte iritsiz. Irakurleak kontuan izan beharko du albuma, zinema den bezala, arte anitz bat dela, konposizioaren espazio dimentsioa eta narrazio erritmoaren denbora dimentsioa dituena (Acaso, 2006).

Irudien bidez informazio asko jasoko du hartzaileak, forma ematen baitiote fikziozko munduari. Ilustrazioen bidez pertsonaiei aurpegia jartzen diegu, giro desberdinak nabari ditzakegu eta horrez gain narrazioaren erregistroa hauteman dezakegu. Istorioa beste ikuspuntu batetik ikusten laguntzen digute irudiek. Ez da testuak dioenaren bisualizazio hutsean geratzen. Dena hartu behar da kontuan albuma irakurtzerakoan, ezin da detaile bakar bat ere pasatzen utzi, horrek ere zerbait gehitu diezaiokeelako istorioari eta are gehiago ironiazko harremana dagoen albumetan (Silva, 2006). Ilustrazioaren bidez, hitzez azaltzen ez diren gauzak erakusten dira, narrazioaren pisu bereganatuz eta ideia zailak eta luzeak modu sintetizatuan helaraziz. Istorio paraleloak sortzeko ere erabiltzen dira ilustrazioak, testuaren eta ilustrazioen erabilera sistematikoki txandakatuz eta elkarren arteko erlazio gatazkatsuak edo kontraesankorrak sortuz. Gainera, albumetan asko erabiltzen den beste fenomeno bat mundu polifonikoena da, eta fenomeno hau narrazio ahotsak biderkatzean datza, hau da, irudien bidez istorio nagusiaz gain, modu paraleloan beste istorio batzuk agertzea *Un regalo diferente* ( Azcona eta Osuna, 2006) albumean ikusi dezakegun bezala.

Albumen irakurketak idatzizko testuaren irakurketa sekuentziatua eta ilustrazioen irakurketa espaziala egitea eskatzen ditu, irakurlea tentsio puntu batean jarriz. Irakurketa dinamikoa eskatzen dute albumek, testuak aurrera egitera bultzatzen zaituen bitartean ilustrazioak geldialdi bat egitera garamatza, kontu handiarekin begiratzera, detaile eta zeinu guztiak kontuan izateko (Hanán 2007)

Hoster eta Gómez-ek (2013) baieztatzen dutenaren arabera, beharrezkoa da albumen irakurketa bestelakoa izatea, ilustrazioetan geldialdiak eginez eta narrazioaren bertsio desberdinak eginez. Ikasleei istorioa kontatzen utzi behar zaie oraindik irakurtzen jakin ez arren, ez dagoelako istorioa kontatzeko modu on eta txarrik. Honela, haurren autoestimua hobetzen lagunduko dugu, gaizki egitearen beldurra alde batera uzten dutelako beraiengan sinetsiz. Gainera, haurren beldurrak edo interesak ezagutzen ere lagundu diezaguke albumen kontaketak, bakoitzak bere begiradaren arabera osatzen baitu kontaketa.

Haurrei zuzendutako albumez ari garenez, ezin da ahaztu aurre irakurleengan duten eragina. Albumek asko laguntzen diete idatzizko kodea menperatzen ez duten haurrei, ilustrazioei esker irakurketaren munduan sartzen eta irakurtzen ikasten testuarekin interakzio simetrikoa mantenduz. Ondorioz, hezitzaileek kontuan izan behar dute albumek irakurketa berritzailea, zabala eta sortzailea eskatzen dutela, ikusizko kodea eta hitzezkoa, eta beraien arteko harremana, bateratuz. Irakurketa tradizionala ez da baliagarria formatu honetako liburuentzat, irakurketa maila desberdina daukatelako, mundu polifonikoen eta narrazio erregistroen potentziala izanik.

### 1.2.6. Albumaren onurak

Albumak literaturaren parte bat direnez, garrantzitsua da hauen helburua ludikoa izatea, baina horrek ez du esan nahi hauen bidez ezer ikasten ez denik. Izan ere, albumei esker, hainbat ezagutza eskuratu ditzakete haurrek, konpetentzia alfabetikoak, denborazkoak, zenbakuntzakoak eta espazioaren konpetentziak barneratuz. Albumak duen karga literarioaz gain, irakurlearengan onura kognitiboak eragiten ditu irakurlearen parte hartze aktiboari esker (Duran, 2008).

Arreta jartzen ikas dezaten ere egokiak dira albumak. Albumak liburu dinamikoak izaten dira eta oso bisualak, hori dela eta beste liburu batzuekin baino errazagoa izaten da haurren arreta lortzea. Gainera albumetan irakurlearen papera aktiboa izateak asko laguntzen die haurrei istorioa jarraitzea errazagoa egiten baitzaie.

Albumek hainbat errealitate irudikatzeko ahalmena daukate, honen bidez irakurleari mundu desberdinetatik bidaiaraziz eta sentsorialki estimulu desberdinak helaraziz. Identifikazio metafikzionalen jolasa eragiten dute albumek. Norbere identitatea eraikitzen laguntzen dute besteen errepresentazioak ikusiz eta protagonisten sentimenduak ulertuz. Emozio desberdinak biziarazteaz gain, albumek gauza berriak ikasteko aukera ematen digute (Fajardo,2014). “El placer de leer es el placer de conocer…”(Duran, 2009).

Haurrari albumarekin esploratzen utzi behar zaio, bere kabuz irakurtzen eta irakurketa hauei esker bere interpretazioak osatzeko gai izango da, pentsamenduaren autonomia maila handiagoa lortuz.

### 1.2.7. Albuma eta Haur Hezkuntza

Albuma ezinbesteko tresna da haur hezkuntzako ikasleentzat, gaitasun linguistiko, narratibo eta ahozkotasunerako mesedegarria baita, eta hiztegi zabalagoa eraikitzen laguntzen baitie haurrei. Gaitasun hauek eskuratzeko, familiek eta irakasleek paper garrantzitsua jokatuko dute, beraiek izango baitira haurrak irakurketara bideratu eta material egokiak aukeratu behar izango dituztenak. Irakurzaletasuna bultzatuz eta jarraipen bat eginez haurrak irakurtzearen plazerrarekin topo egingo dute. Irakurketa guztiok lortu beharreko gaitasun komunikatibo bat da, bizitzaren lehenengo urteetan garatzen hasi beharrekoa. Haurtzaroan ematen diren pausuei garrantzia handia eman behar zaie, garai hori funtsezkoa baita irakurketarekiko gustua eta pasioa hartzen hasteko, gerora irakurketa ohitura atsegin batean bihurtu dadin (Cubillos. 2017).

Albumaren kasuan testuaren eta irudiaren irakurketa elkarrekin uztartuta doazenez, izan daiteke irakurleak testuaren eta irudiaren arteko lotura desberdinak egitea, honekin haurrak imajinaziora eramanez eta interpretatzeko modu anitzetara bideratuz. Haurrak idatzizko kodera hurbiltzeko aukera izango du albumaren bidez, baina ikusizko kodearen lanketa atzean utzi gabe, irudiak esanahi asko izan ditzakeela ahaztu gabe. Haurrek albumetan egoten diren ilustrazioak bere egunerokotasuneko egoerekin lotzeko joera ere izaten dute, ikusten dutenari zentzua eta esanahia emanez irakurketa esanguratsu batera hurbilduz (Cubillos, 2017).

## 2. HELBURUAK

- Ikerketa teorikoetan oinarrituz, irizpideak aurkitzea egunerokotasuneko eta kalitatezko albumak aztertzeko.
- Euskaraz argitaratzen den albumetatik jatorrian euskaraz argitaratutakoak eta itzuliak zenbat diren jakitea.
- Euskal Herriko haurrek zer irakurtzen duten eta nongo erreferenteak dituzten jakitea liburu gomendagarrienak analizatuz
- Liburu gomendagarriak aztertu ondoren, gehien errepikatzen dituzten irizpideak zeintzuk diren identifikatzea, testua, kolorea, formatua, grafia, ilustrazioak eta paratestuak aztertuz.

- Albumetan irudiaren eta testuaren arteko harremana eta presentzia nolakoak diren ezagutzea.
- Euskaraz idatzitako albumen egileen artean emakumeen presentzia zenbatekoa den jakitea.

# 3. ANALISIRAKO METODOA

Lan hau burutzeko hainbat pausu jarraitu behar izan ditugu. Lehenik, bilaketa bibliografiko bat egin behar izan dugu oinarriztapen teorikoa bat eduki ahal izateko, albumen eta haur literaturaren inguruko zenbait artikulu eta liburu irakurriz. Irakurritako guztia kontuan hartuta, albumaren zein alderdi aztertuko ditugun erabaki eta ikerketa tresna bat osatu dugu gure helburuen araberakoa.

Helburuetako bat egungo albumak aztertzea izanik, behin ikerketa tresna eginda, korpus bat osatu dugu eta horretarako Mondragon Unibetsitateak ateratako gida batez baliatu gara. Euskaraz idatzitako 2015etik 2017ra bitarteko 15 albumek osatuko dute korpusa.

Ondoren irakurketa analitiko bat egin dugu album bakoitzarekin, eta dagokion fitxa bibliografiko bat bete ikerketa tresnaren araberako ebaluazio bat egiteko. Ikerketa taula guztiak bete ondoren emaitza batzuk aterako dira, eta emaitza horiekin ondorio batzuk ateratzea izango da azken pausua.

## *3.1. Ikerketa tresna*

Lan honetan album batzuen azterketa bat egingo denez, beharrezkoa izango da tresna batzuk erabiltzea. Tresna hauek sortzeko aurretiazko lanketa bibliografiko bat egin behar izan da, gaiaren inguruan gehiago jakin eta instrumentu egokiak sortzeko. Kasu honetan tresna horri taula egitura emango zaio hainbat irizpide sailkatuz, obra analizatzerakoan irakurlearen subjektibotasuna murrizteko asmoarekin. Taula hauetako bakoitzarekin alderdi zehatz bat aztertu ahal izango da. Honela, hainbat albumen alderdi desberdinak aztertuko dira, ondoren datuak bildu eta ondorio batzuk ateratzeko, landu nahi diren helburuen arabera. Azaldutako ikerketa tresna hori, Arnal-en (2012) *El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008*) lanean oinarritutakoa da.

Hainbat izango dira aztertuko diren albumak, horregatik, beharrezkoa izango da liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzea, zein liburuz ari garen jakiteko. Lehenengo taula honekin album bakoitzaren jatorria zein den ikus dezakegu, gurean genero literario berria delako. Horrela nongo literatura kontsumitzen dugun jakingo dugu, gure erreferenteak identifikatuz. Itzulpenen kasuan ere baliagarri egingo zaigu edizio data jakitea, liburua editatu denetik guregana heldu arte pasatu behar izan den denbora zenbatekoa izan den jakiteko. Eta azkenik, sariak obra baten prestigioa edota literatura kalitatea identifikatzen lagunduko digu, gure ikasleei maila oneko liburu zerrenda bat helarazteko.

<table>
<tr><td colspan="6">TITULUA:</td></tr>
<tr><td colspan="6">IDAZLEA:<br>ILUSTRATZAILEA:</td></tr>
<tr><th colspan="2">Itzulpena</th><th>Edizio urtea. Herrialdea. Hizkuntza</th><th>Itzulpenaren urtea</th><th colspan="2">Sariak</th></tr>
<tr><td>Bai</td><td>Ez</td><td></td><td></td><td>Bai</td><td>Ez</td></tr>
<tr><td>Oharrak</td><td colspan="5"></td></tr>
</table>

Bigarren taula honen bidez, albumek duten testua aztertuko da, bi motatako albumak bereiziz. Alde batetik narrazio esplizitua daukaten obrak, hau da, hitza daukaten obrak, eta beste alde batetik narrazio inplizituak, narrazioaren ardura irudiak bakarrik hartzen duenean.

<table>
<tr><th colspan="4">TESTUA</th></tr>
<tr><th colspan="2">Esplizitua</th><th colspan="2">Inplizitua</th></tr>
<tr><td>Bai</td><td>Ez</td><td>Bai</td><td>Ez</td></tr>
<tr><td>Oharrak:</td><td colspan="3"></td></tr>
</table>

Zapiraín eta González-ek (2010) esan bezala, albumaren ezaugarri nagusietako bat irudiaren eta testuaren uztarketa eta sekuentziazioa izanik, funtsezkoa da albuma aztertzerako orduan hauen arteko harremanari erreparatzea. Izan ere, biek protagonismo berbera duten arren, beti ez dira era berean uztartzen. Bien arteko baturak komunikazio eraginkortasuna aberasten du, eta batura hori hiru harreman motatan bereizten da: simetria, hedapen edo erlazio gehigarria, eta kontraesankorra.

Simetria erlazioaz ari garenean, testua eta irudia batera doazela esan nahi da, eginkizunak banatuz. Hitzaren bidez kontakizuna ematen da eta irudiekin

kontakizunaren zehaztasunak eta pasarte esanguratsuak, testua apainduz eta borobilduz.

Hedapen erlazioan edota erlazio gehigarrian, batak bestea osatzen du eta ez da beharrezkoa ikusgai dagoena esatea. Hitzen bidez azaltzen ez dena esaten digute irudiek.

Azaltzen den azken mota harreman kontraesankorrarena da. Harreman mota honetan irudiaren eta testuaren artean dagoen harremana ironiazkoa da, elkarren artean borrokatzen dutelarik.

| **IRUDIAREN ETA TESTUAREN ARTEKO HARREMANA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Simetria** | | **Hedapen edo erlazio gehigarria** | | **Kontraesankorra** | |
| Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Oharrak: | | | | | |

Kontuan izanda album batean istorioa osatzeko orduan grafiak ere parte hartzen duela, hori aztertzea ezinbestekoa da. Grafia ere arlo estetikoaren parte izaten da eta esanahia osatzen laguntzen dio irakurleari. Grafian aldaketak eginez, mota ezberdinetako letra erabiliz, enfasia ematea lortzen da, esaten duenari indarra emanez. Baina beti ez da modu berdinean ematen eta batzuetan oso nabarmena izaten da album osoan zehar, eta beste batzuetan ez da horren esanguratsua izaten grafiaren aukeraketa.

| **GRAFIA** | | |
|---|---|---|
| **Grafiak istorioa eraikitzen laguntzen du?** | | |
| Bai | | Ez |
| Oharrak: | | |
| **Erabilera estetikoa dauka?** | | |
| Bai | | Ez |
| Oharrak: | | |
| **Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremana** | | |
| Bereizia | Bateratua | Nahastua |
| Oharrak: | | |

| **Funtzioak** | | |
|---|---|---|
| Enfasia eman | Deskriptiboa | Besteak |
| Oharrak: | | |

Lan honetan aztertuko diren albumak 0-6 urte bitarteko haurrentzako zuzendutakoak izango direnez, eta etapa horretan zentzumenak asko lantzen direnez, maiz izaten dira erliebe edota testura desberdinak izaten dituzten liburuak. Gainera ukimena lantzeaz gain, gaitasun bisualaren bidez pertsonaiei izaera desberdinak eman dakizkieke metodo honekin, edo pasarte eta egoerak desberdindu.

Koloreek ere badute zer esana, izugarria baita irakurlearengan duten eragina. Koloreen bidez emozioak transmititzen dira eta sekuentziazio bat ematea errazten dute. Irudi batzuek beste batzuen aldean nabarmentzeko ere balio dute, kolore biziak eta ez biziak tartekatuz, eta zer esanik ez irakurlea egoeran jartzeko, lantzen den gaiaren arabera kontestualizatuz.

| **ILUSTRAZIOA** | |
|---|---|
| **Sekuentzialitatea dago irudiei esker?** | |
| Bai | Ez |

| **Orrialdeen antolaketari dagokionez, ilustrazioak:** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Handiak | Txikiak | Erdigunean | Zentratua ez daudenak | Ezkerrean | Eskuinean |

| **Erliebe edo ehundura desberdinak agertzen dira?** | | | |
|---|---|---|---|
| Bai | | | Ez |
| **Pertsonaiak** | **Egoerak** | **Eszenatokia** | |
| Oharrak: | | | |

| **Zeintzuk dira erabiltzen diren koloreak?** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kolore biziak** | | **Kolore leunak** | | **Kolore iluna** | | **Kolore gabea** | |
| Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Oharrak: | | | | | | | |
| **Koloreekin jolasten da irudiei enfasia emanez?** | | | | | | | |
| Bai | | | | Ez | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Itzalak | Tonuak | Distirak | |
| Oharrak: | | | |
| **Gaiaren araberako koloreak erabiltzen dira?** | | | |
| Bai | | Ez | |
| Oharrak: | | | |

Lluch-ek (2003) azaldu bezala, paratestuak irakurleari irakurgaian barneratzen laguntzen dieten elementuak dira, liburuaren edukiari buruzko lehenengo argibideak erraztuz. Euskarriak, azalak eta izenburuak, esaterako, garrantzia handia daukate, hauek izango baitira haurrak ipuin bat hartzeko edo ez hartzeko erabakiaren erantzule. Haurrentzat deigarria izan beharko da eta askotan euskarria bera ere izango da ipuinaren parte.

| **PARATESTUAK** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Azaletik hasten da istorioa?** | | | | | |
| Bai | | | Ez | | |
| Oharrak: | | | | | |
| **Izenburua eta azaleko ilustrazioa bat datoz?** | | | | | |
| Bai | | | Ez | | |
| Oharrak: | | | | | |
| **Kontrazalak ematen dio bukaera istorioari?** | | | | | |
| Bai | | | Ez | | |
| Oharrak: | | | | | |
| **Formatoa** | | | | | |
| **Apaizatua** | | **Karratua** | | **Berezia** | |
| Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Oharrak: | | | | | |

Kontuan izanda haurrekin lan egingo dugula eta albumak beraiekin lan egiteko tresna izango direla, onuragarria da erabiliko ditugun albumek tratatzen dituzten gaiak zeintzuk diren jakitea.

| GAIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sentimendu edo emozioak | Identitatea | Gaixotasunak | Egoera edo arazo sozialak | Ingurua | Eguneroko bizitza | Beste bat |
| Oharrak: | | | | | | |

## *3.2. Korpusa*

Korpusa osatzerako orduan, hainbat irizpide hartuko ditugu kontuan. Gradu amaierako lan hau albumen azterketa bat izanik, funtsezkoa izango da aztertzeko erabiliko diren obrak albumak izatea. Horrez gain, Euskal Herrian bizi izanda eta bertako ikastetxe gehienak D eredukoak direla kontuan hartuta, euskaraz argitaratutako albumak aukeratuko ditugu. Gainera, euskaraz publikatutako albumen ekoizpena urria da, euskara hizkuntza gutxitua den aldetik. Horregatik, garrantzitsua deritzogu bertako albumak aztertu eta hauen inguruko lan bat egitea, euskal hiztunek zer irakurtzen duten jakiteko eta irakasle izango garenez ikasleekin erabiltzeko dugun materiala nolakoa den jakiteko.

Liburu berberak adin desberdinetako jendearentzat balio dezake eta are gehiago albumei buruz ari garenean, baina, askotan irakurri beharko luketen irakurleen adinaren arabera banatuta egoten dira. Liburutegietara joatea besterik ez dago, bertan gehienetan horrela sailkatzen baitituzte liburuak, eta idazleak batzuetan adin jakin bateko irakurle bat irudikatzen du bere buruan idazten duen bitartean. Hori aintzat hartuta eta Haur Hezkuntzako gradua egiten gaudenez, 0-6 urte bitarteko haurrei zuzendutako albumak aztertuko ditugu. Liburuen gaurkotasuna ere izango dugu kontuan, liburuen bizitza ez baita luzea izaten eta eguneratutako corpusa osatzea da gure asmoa.

Azkenik, korpusa osatzeko, kalitatea eta maila literarioa bermatze aldera, Mondragon Unibertsitateak azken urteetan ateratako irakurketa gidez baliatuko gara, zehazki 2015, 2016 eta 2017 urteetakoez. Gida hauetan, urte jakin batean haur eta gazte literaturan euskaraz publikatutako liburuak irakurri eta lanketa bat egin ostean, gomendagarriak zeintzuk diren aipatzen da, zerrendak eginez eta gomendagarrienen gainean zerbait idatziz.

1. Alejandro, R (2017). *Ximunen baratzea.* Arre (Nafarroa): Pamiela

Jatorrizko izena: *La huerta de Simón*

2. Añorga, P. eta Mitxelena, J. (2015). *Munstroek ere pixa egiten dute ohean.* Arre (Nafarroa): Pamiela

3. Ballesteros, X. eta Somá, M. (2016). *Hiru txerrikumeak.* Arre (Nafarroa): Pamiela

   Jatorrizko izena: *Os tres porquiños*

4. Blake, Q (2016). *Angelika milapatrikaren patrikak.* Arre (Nafarroa): Pamiela

   Jatorrizko izena: *Angelica Sprocket´s Pockets*

5. Desbordes, A. eta Martin, P.(2015). *Nire Maitea.* Donostia: Ttarttalo

   Jatorrizko izenburua: *Mon amour*

6. Dipacho (2015). *Bi txori.* Donostia: Ttarttalo

7. Donaldson, J. eta Scheffler, A. (2017). *Grufaloaren alaba.* Madrid: Bruño

   Jatorrizko izenburua: *The Gruffalo´s Child*

8. Lionni, L. (2017). *Alex eta sagu mekanikoa.* Arre (Nafarroa): Pamiela

   Jatorrizko izena: *Alexander and the Wind-Up Mouse.*

9. Martinez, I. eta Goñi, L. (2016). *Zerua gris dago.* Arre (Nafarroa): Pamiela

10. Mckee, D. (2017). *Elmer elurretan.* Donostia: Erein

    Jatorrizko izenburua: *Elmer in the snow*

11. Murphy, J. (2016). *Bost minutuko lasaialdia.* Arre (Nafarroa): Pamiela

    Jatorrizko izenburua: *Five Minutes´ Peace*

12. Portis, A. (2017). *Ez da kaxa bat.* Arre (Nafarroa): Pamiela.

    Jatorrizko izenburua: *Not a Box*

13. Rodari, G.eta Sanna, A. (2017). *Ipuinak nahasten.* Arre (Nafarroa): Pamiela

    Jatorrizko izenburua: *A sbagliare le storie.*

14. Timmers, L. (2017). *Belea.* Alzira: Algar.

    Jatorrizko izenburua: *Kraai*

15. Waddell, M.- Benson, P.(2017). *Hontz Kumeak.* Arre (Nafarroa): Pamiela

    Jatorrizko izenburua: *Owl Babies*

# 4. ANALISIAREN EMAITZAK

Aukeratutako albumei ikerketa tresna pasatu eta gero honako hauek dira ateratako emaitzak.

- Herrialdeei dagokionez, liburuen % 13,33a (N=2) baino ez da Euskal Herrian eta euskaraz ekoiztutakoa. Beste % 86,67a (N=13) euskarara itzulitako liburuak dira. Albumen %33,33a (N=5) Ingalaterran ekoiztutakoa da, %13,33a (N=2) Holandakoa, %13,33a (N=2) Espainian ekoiztutakoa eta Frantziakoa %6,67a (N=1) da, Kolonbiakoa, Italiakoa eta Estatu Batuetakoa bezala.




- Liburuen egileak bi multzotan banatuta daude; idazleak alde batetik eta ilustratzaileak bestetik, eta emaitzak berdinak dira bietan. Egileen %66,67a (N=10) gizonezkoak dira eta %33,33a (N= 5) emakumezkoak.






- Testua bi era desberdinetan bereizten da, era inplizituan eta esplizituan. Testua era esplizituan daukaten albumak %93,33a (N=14) dira eta inplizituan, berriz, %6,67a (N=1).




- Irudiaren eta testuaren arteko harremanari errepartuz, honako hauek dira datuak: %26,67a (N=4) simetria harremanari dagokio; %66,67a (N=10) hedapen edo erlazio gehigarriari; %6,67ak (N=1) ez dauka testurik; eta ez dago erlazio kontraesankorreko albumik.




- Grafiari dagokionez, %46,67ak (N=7) istorioa eraikitzen laguntzen du. %53,33ak (N=8), aldiz, ez du eginkizun hori betetzen.



- Grafiak duen erabilera estetikoa aztertuta ikusi daiteke albumen %93,33etan (N=14) ez duela erabilera estetikorik, eta %6,67ak (N=1) baino ez duela erabilera estetikoa.




- Grafiarekin jarraituz, funtzioak aztertu dira grafiko honetan. Albumen % 53,33tan (N=8) grafia enfasia emateko erabiltzen da; %6,67etan (N=1) ez dago grafiarik; funtzio deskriptiboa ez da inon betetzen; eta %40an (N=6) grafiak beste funtzio batzuk ditu.




- Grafiaren eta irudien arteko kokapen harremana ez da beti berdina izaten. %46,67a (N=7) bateratura da; %26,67a (N=4) bereizia; %13,33a (N=2) nahastua; beste era bateko harremanak %6,67a (N=1)dira; eta beste %6,67a (N=1) grafiarik gabea da.



- Irudiei esker sekuentzialitatea lortzen da %93,33 (N=14) kasutan, %6,67etan (N=1), aldiz, ez.




- Ilustrazioen antolaketari dagokionez, gehiengoa, hau da, % 46,67a ( N=7) erdigunean kokatzen da. %20a (N=3) ez dago zentratua, beste %20a (N=3) eskuinean kokatuta dago, ezkerrean kokatutako kasurik ez dago; eta azken %13,33 ak (N=2) beste kokapen mota bat dauka.




- Aztertutako albumetan ehunduraren presentzia oso urria da. % 6.67ak (N=1) baino ez dauka ehundurarik. Gainontzeko %93,33ak (N=14) ez dauka ez erlieberik ezta ehundurarik ere.



- Koloreak lau motatan bereiztuta aztertu dira eta gehien erebiltzen direnak biziak dira %46,67a (N=7) baitagokie. %20ko (N=3)portzentaiarekin bi kolore mota ikus ditzakegu: leunak eta nahastuak, eta azkenik %13,33a (N=2) kolore ilunei dagokie.




- Koloreekin jarraituz, albumen %60ak (N=9) ez ditu koloreak enfasia emateko erabiltzen, baina beste %40ak (N=6), ordea, bai. Kolorearekin enfasia ematea lortzen duten horien artean ere bereiketa bat ikus daiteke, izan ere, %20ak (N=3) tonuak erabiltzen ditu horretarako, eta beste %20ak (N=3) beste modu batzuetan lortzen du.




- Albumen %73,33ak (N=11) gaiaren araberako koloreak erabiltzen ditu, eta gainnontzeko %26,67ak (N=4) ez gu gaia kontuan hartzen koloreak erabiltzerakoan.



- Hurrengo grafikoan izenburuaren eta azaleko ilustrazioaren batura aztertzen da. %93,33an (N=14) izenburua eta azaleko ilustrazioa bat datoz, beste %6,67an (N=1), ordez, ez.




- Azalak betetzen duen papera behatzen jarraituz, %20a (N=3) baino ez dira azaletik hasten istorioa kontatzen; beste %80an (N=12) ez da horrela gertatzen.




- Kontrazalari eta istorioari erreparatuz, datuen arabera %86,67an (N=13) ez da istorioa kontrazalean bukatzen, baina %13,33an (N=2) bai.



- Albumaren formatoa hiru motatan bereiztuta dago, eta aztertutako albumetan %86,67a (N=13) formatu karratukoa da, %13,33a (N=2) apaizatua, %6,67a (N=1) nahastua eta bereiziei dagokionez, ez dago bat ere.




- 15 albumak aztertuta, honako hauek dira lantzen diren gaiak: %26,67an (N=4) eguneroko bizitzaren gaiak lantzen dira; %20an (N=3) sentimenduen eta emozioen gaiak; beste %20ean (N=3) beste gai batzuk lantzen dira; %13,33an (N=2) identitatea; %13,33an (N=2) berriz, egoera edo arazo sozialak; eta azken %6,67an (N=1) gaixotasunei buruzko gaiak.



# 5. ONDORIOAK

Lan honen helburuetako bat Euskal Herriko 0-6 urte tarteko haurrek zer irakurtzen duten jakitea izan da, nongo erreferenteak dituzten eta obra horietako zenbat diren jatorrian euskaraz argitaratutakoak. Ateratako emaitzei erreparatu ezkero, argi ikusten da erreferente gehienak kanpotik ekarritakoak direla, euskarara itzulitakoak. Kasu honetan, Ingalaterra dugu erreferente nagusia, beste batzuen artean. Euskal Herrian eta euskaraz argitaratutakoak, berriz, % 13,33ra baino ez dira iristen.

Egia esan, euskarazko lehen haur liburua idatzi zenetik, ia ezer ez idaztetik, urtean 300 obra inguru argitaratzera iritsi dira, euskarazko haur eta gazteen sailean. 2005. urtean euskarazko haur eta gazte literaturaren produkzioa %20-25ean zegoen. Aurreko urteetan baino zertxobait gutxiago sortu zen, ekoizpenak behera egin zuen. Gainera, tamalez, askotan heziketara bideratutako liburuak izaten dira, balio literarioa alde batera utzita, erabilera didaktikoaren erruz. Horrez gain, ez dago eskoletako liburutegi politikarik eta liburutegi sarea nahiko ahula da. Idazleei dagokienez, produkzioek gorabehera handiak izaten dituzte eta gutxi batzuen eskuetan egoten dira produkzio gehienak (Etxaniz, 2005). Hego Euskal Herriko liburuen ekoizpenari begiratu bat eman ezkero, nabaria izan zen 2017an izan zuen beherakada, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %18,2koa izanik eta Nafarroan, berriz, %34,6koa. Eta euskaraz ekoiztutako liburuek %13ko jaitsiera izan zuten (Bereziartua, 2018).

Liburuaren egoera orokorra nola dagoen ikusita, argi dago euskaraz idatzitako albumak ere urriak izango direla. Haur eta gazteei zuzendutako ekoizpenak oso mugatuta daude eta bertako idazleek ekoizten dutenaz gain, beste herrialde batzuetatik datozen lanak ere badaude. Euskal Herria herrialde txikia izanik, merkatu txikia da liburuak ekoizteko eta horri euskaraz idaztea gehitzen badiogu are txikiagoa, biztanleria guztiak ez baitauka euskaraz irakurtzeko gaitasunik.

Egoera hori ikusita, 2006.urtean Etxepare sariek eraldaketa bat izan zuten eta albumak sortzeko beka bihurtu ziren, euskarazko albumen produkzioa sustatzeko, ordura arte euskaraz argitaratzen ziren album gehienak itzuliak baitziren. Beka honekin saritutako albumak Pamiela argitaletxeak argitaratzen zituen, albumak sortzeko beste oztopo bat, dituen ezaugarriengatik, produkzio garesti duela baita. 2009ra arte baino ez zuen iraun beka honek, harrezkero Etxepare Saria izatera pasatu da berriro. Hala ere, jarraitzen du euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzen, guk aztertutako albumetan bi baitira euskaldunak eta biak Etxepare sariaren irabazleak.

Horrez gain, aipatzekoa da Pamiela argitaletxeak euskarazko albumen argitalpenetan duen garrantzia. Izan ere, aztertutako korpusean gehiengo argia (% 60)

Pamiela argitaletxeak argitaratutakoa da. Lehen esan bezala, argitaletxe hau da Etxepare sarietako album irabazleak argitaratzen dituena, albumei bultzada bat emanez. Gainera, Kalandraka argitaletxeko liburuak ere argitaratzen ditu euskaraz, gure korpuseko Ballesterosen eta Somáren (2016) Hiru txerrikumeak esaterako.

Haur Hezkuntzan lan egiten duten irakasle gehienak emakumeak diren arren, euskaraz idatzitako albumen egileei dagokienez, nabaria da emakumezkoen presentzia urriagoa dela. Bai ilustratzaile eta baita idazleen kasuan ere. Eta hori euskal literaturan ere gertatzen da, euskal idazleetatik %10,8 baino ez baita emakumezkoa (Olaziregi, 2000).

Nahiz eta albumean ilustrazioek oso indar handia izan eta irudiek testu idatziek ematen ez diguten informazioa eman, oraindik oso gutxi dira testurik gabeko liburuak. Gure korpusean, esaterako, album bakarra dago testua era inplizituan duena. Hori, gure irakurtzeko ohituren isla dela esan dezakegu. Izan ere, ohituta gaude honela irakurtzen, deskodifikatzeari garrantzia ematen eta, zoritxarrez, ez gaude irudiaren irakurketan alfabetizatuta. Baina albumari esker, horri buelta eman diezaiokegu. Albumak, benetako irakurketa ematea errazten baitu, deskodifikaziotik haratago doan zerbait proposatuz. Bajourek eta Carranzak (2003) esan bezala, albumek irakurlearen rol aktiboa eskatzen dute, deskodetzen ez dakiten haurrak benetako irakurketara bideratuz.

Mondragon Unibertsitateak azken urteetan ateratako euskaraz publikatutako haur eta gazte literaturako gidak erreferentziatzat hartuta, liburu gomendagarriak aztertu ondoren, gehien errepikatzen diren irizpideak identifikatu ditzakegu. Horretarako testua, kolorea, formatua, grafia, ilustrazioak eta paratestuak aztertu ditugu ezaugarri bakoitzean zentratuz.

Testua daukaten albumen kasuan harreman desberdinak izaten dituzte irudiaren eta testuaren artean, baina gure korpusean hedapen harremana edo erlazio gehigarria da gehien errepikatzen dena. Hori ez da harritzekoa, gure korpusa haur hezkuntzako haurrei zuzendutako albumek osatzen baitute. Duranek (2008) dioen bezala, albumak txikiei zuzendutakoak izaten dira gehienetan eta hedapen edo erlazio gehigarria da egokiena umeak ulertu dezan, harreman honek irakurketa errazten baitie. Simetria harremana eta harreman kontraesankorra, berriz, egokiagoak dira irakurketan trebatuagoak diren haurrentzat, deskodetzea eskatzen baitute eta, kontraesankorraren kasuan, ironiazko kontzeptua menperatzea.

Grafiari dagokionez, ateratako emaitzen arabera, esan dezakegu albumen erdia baino zerbait gehiagotan ez duela istorioa eraikitzen laguntzen, baina hala ere, handia da funtzio narratiboa hartzen duen album kopurua. Poliki-poliki grafia elementu narratibo bezala erabiltzen hasi da, erabilera estetikoa alde batera utzita, eta funtzio

desberdinak betetzen ditu albumetan. Kasu honetan, gehien betetzen duen funtzioa enfasia ematearena da eta horretarako letra larriak eta beltzituak erabiltzen dituzte gehienbat. Beste zenbait albumetan, grafiak ez du funtzio berezirik betetzen. Gure korpusean badago album bat azalean eta kontrazalean baino ez duena grafiarik eta hori grafiarik gabeko album bezala identifikatu dugu.

Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremana, ere, desberdina izan daiteke album batetik bestera. Batzuetan orrialde berean eta nahastuta etorri daitezke, erabilera estetiko izan dezakeelako, nahiz eta emaitzei begiratuta hori ez den sarritan gertatzen. Gehien ematen den kokapen harreman mota bateratua da, orrialde berean baina kokapen ezberdinekin, normalean ilustrazioak orrialde osoa hartzen duelako haurrarentzat erakargarriago eginez eta espazioa konpartituz.

Sekuentzialitatea aztertzerakoan emaitzak bat datoz album izaerarekin, ia album guztietan lortzen baita sekuentzialitatea irudiei esker. Izan ere, Brownek (2006) esan bezala, albuma irudien kate bat da non sekuentzializazioa lortzen den.

Ilustrazioen antolaketari erreparatuz, gehien errepikatzen den irizpidea erdigunean kokatzen direla da. Normalean ilustrazioek bi orrialdeak erabiltzen dituzte eta honek lehen esan bezala irudiaren eta testuaren arteko harremana bateratua izatea ahalbidetzen du. Ilustrazioekin jarraituz, kolore bizien presentzia nabarmendu behar da. Hala ere, gaiaren araberakoa izaten da normalean eta horrek album batzuetan biziak, leunak edota kolore nahasketak erabiltzea dakar. Gaiaren araberako koloreak aukeratzeaz gain, ikusi ahal izan dugu album hauetako batzuetan enfasia emateko ere erabili izan direla koloreak, gehienbat tonu aldaketekin jolastuz.

Enfasia ematerako orduan, koloreak ondo aukeratzeaz gain, aztertutako album batean ehundura ere erabiltzen da. Liburuaren azalak eta kontrazalak kutxa baten testura daukate, horrela, istorioaren gaiarekin harreman zuzena lortuz. Izenburua eta azaleko ilustrazioa aztertzerakoan, ere, nabarmena da elkarrekin duten harremana, elkarrekin bat doazelako album gehienetan. Izan ere, ez dugu ahaztu behar azalaren eta kontrazalaren funtzioa oso esanguratsua izango dela irakurlea bereganatzeko orduan (Hanán, 2007).

Badaude album batzuk istorioa azaletik hasi eta kontrazaletik bukatzen dutenak, baina korpus honetan album gehienetan ez da hori ematen. Istorioa azaletik hasten duten hiru (%20) album baino ez daude, eta bi (13,33) kontrazalean bukatzen direnak. Album hauetan, irakurlea albuma hartzen duen unetik murgiltzen da istorioan. Baina besteetan ere, funtsezko papera jokatzen dute azalek eta kontrazalek, kontakizunean sartzeko pistak ematen baitizkigute (Cubillos, 2017).

Formatuari dagokionez, karratua da erabiliena. Izan ere, formatu hau da kontzentrazio ahalmen gehien duena, eta kontuan izanda haur txikientzako albumez ari garela, ezinbesteko ezaugarria da hori. Formatu honek orrialde bikoitzak tartekatzen ditu eta ilustrazioetan eta testuetan arreta sorrarazten du (Colomer, 1999).

Azkenik, album hauetan lantzen diren gaiak aztertu ditugu eta emaitzak behatuz ondorioztatu dezakegu landutako gaiak oso egokiak direla haur hezkuntzarako, umeak identifikatuta senti daitezkeen gaiak baitira. Egunerokotasunekoak eta haurren gertukoak, umearen izaerarekin, nortasunarekin eta garapenarekin lotutakoak ( adiskidetasuna, beldurra, emozioak…).

# 6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lan honi esker albumaren inguruko hainbat aspektu aztertu ahal izan ditugu, Euskal Herriko haurrek eskuragarri dituzten hainbat album behatuz. Albuma haur literaturak duen genero berria eta berritzailea dela ikusi ahal izan dugu, indartsua eta sormenez betea. Baina, hala ere, badira aztertu gabe geratu zaizkigun zenbait aspektu edota gehiago sakondu ditzakegunak. Horregatik, hauek dira lan hau hobetzeko proposamenak:

Hasteko, albumen hautaketari begira, uste dugu egokia izango litzatekela album kopuru handiagoa aztertzea. Korpus zabalago batekin, lagin gehiago izango genituzke eta honek ateratako ondorioak zehatzagoak izatea eragingo luke.

Irizpide gehiago jartzea ere egokia izango litzateke azterketa osatuago bat egin ahal izateko. Hainbat aspektu landu daitezke, ilustrazioak egiteko erabiltzen diren teknikak, pertsonaiek dituzten paper desberdinak, edota generoari ematen zaion trataera, esaterako.

Azkenik, Euskal Herrian bizi garenez, soilik jatorrian euskaraz idatzitako albumak aztertzea ere egokia litzateke, bertan ekoiztutako albumak ezagutu eta landu ahal izateko. Horretarako komeni da korpusa urte gehiagotako albumekin osatzea, Euskal Herriko produkzioa ez delako horren handia.

# 7. BIBLIOGRAFIA


- Acaso, M. (2006). *El lenguaje visual*. Barcelona: Paidós.
- Arnal Gil, J. I. (2012). *El tratamiento de la muerte en el álbum ilustrado infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008).* Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Ayres, A. J. (2006). *La Integración Sensorial y el niño.* Madrid: S.L. Editorial.
- Azcona, M. eta Osuna, R. (2006). *Un regalo diferente*. Sevilla: Kalandraka
- Bajour,C. Eta Carranza, M. (2003) El libro álbum en Argentina. *Imaginaria, 107*. 1-4.
- Battut, E. (2004). *Le secret.* Paris: Didier Jeunesse.
- Bereziartua, G. (2018). Liburuen ekoizpena jaitsi egin zen 2017an Hego Euskal Herrian. *Argia.2599.* 2019ko ekainaren 24an https://www.argia.eus/albistea/liburuen-ekoizpena-jaitsi-egin-da-2017an-hego-euskal-herrian orrialdetik eskuratua.
- Bortolussi, M (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Madrid: Alhambra.
- Browne, A. (2006). Entrevistamos a Anthony Browne. *Peonza, 75/76,* 123-133.
- Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Cauce, Revista de Filología y su Didáctica, n2 12.* 157-168 orrialdeak.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil.* Madrid: Sintesis, S.A.
- Cubillos, P. (2017). La importancia del libro álbum en la educación inicial. *Infancias Imágenes 16*. 144-146.
- Diaz-Plaja, A., eta Duran, T. (2016). La enumeración como principal recurso ocónico y textual en algunos libros álbum. *Edetania: estudios y propuestas socio-educativas. 49*. 61-74.

- Duran, T. (2008). Aprendiendo de los álbumes. *Actas do 7º EncontroNacional/5º Internacional de Investigação em Leitura, Literatura Infantil e Ilustração 7.* 1-15.
- Duran, T. (*2009). Álbumes y otras lecturas. Análisis de los libros infantiles.* Barcelona: Octaedro.
- EE.AA. (2015) *Haur eta Gazte Literatura. Irakur Gida 2015*. Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- EE.AA. (2016) *Haur eta Gazte Literatura. Irakur Gida 2016*. Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- EE.AA. (2017) *Haur eta Gazte Literatura. Irakur Gida 2017.* Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- Etxaniz, X. (2005). Gure arteko haur eta gazte literatura. *Tantak, 33*. 89-101.
- Fajardo, D.M. (2014). El potencial didáctico del libro-álbum para la educación literaria-intercultural. *Educar em Revista,52*., 57-60.
- Ferrándiz, E. (2009). *La media naranja.* Barcelona: Thule.
- Hanán, F. (2007). *Leer y mirar el libro álbum: ¿un género en construcción?.* Bogotá: Norma.
- Hoffmann, H. (2015). La historia de Gaspar sopa. *Pedro Melenas.* Madrid: Impedimenta.
- Hoster, B. eta Gómez A. (2013). Interpretación de álbumes ilustrados como recurso educativo para la competencia literaria y visual. *Red Visual 19*, 65-76
- Lewis, D. (1990). *La constructividad del texto: el libro-álbum y la metaficción. El libro-álbum: Invención y evolución de un género para niños.* Caracas: Parapara-clave.
- Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Mari, I. (1996). *El globito rojo.* Barcelona: Lumen, D.L..

- McDowell, M. (1973). Fiction for children and adults: some essential differences. *Children's Literature in Education*, *4*(1), 50-63.
- Obiols Suari, N. (2004): *Mirando cuentos. Lo visible e invisible en las ilustraciones de la literatura infantil*. Barcelona: Laertes.
- Olaziregi, M. J. (2000). Ez ditzagun zirkuitu bereziak egin emakumezkoek idatzitako literaturarekin. *Euskonews, 71.* 2019ko ekainaren 24an http://www.euskonews.eus/zbk/71/mari-jose-olaziregi-quotez-ditzagun-zirkuitu-bereziak-egin-emakumezkoek-idatzitako-literaturarekin-quot/ar-0071002001E/ orrialdetik eskuratua.
- Pardo, Z. (2009). *Panorama histórico del libro ilustrado y el libro-álbum en la literatura infantil colombiana.* Master en literatura infantil. Colombia: Universidad nacional de Colombia.
- Silva-Diaz, M.C. (2005). *Libros que enseñan a leer: álbumes metaficcionales y conocimiento literario.* Tesis doctoral. Barcelona: Unibersidad autónoma de Barcelona.
- Silva-Díaz, M. C. (2006). La función de la imagen en el álbum. *Peonza, Revista de Literatura Infantil.75-76.* 23-33.
- Solé, I. (2009). Motivación y lectura. *Aula de innovación educativa*,*179*.,56-59.
- Soriano, M. (1975). *Guide de la littérature pour la jeunesse*. Paris: Flammarion.
- Tabernero, R. (2011). Leer y mirar: claves para una poética de la recepción del libro-álbum y del libro ilustrado. *Ensino em Re-Vista 18*(1). 93-109
- Tejerina, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas*. Madrid: Siglo XXI de España Editores, SA.
- Van der Linden, S. (2006). *Lire l'Album*. Frantzia: L'atelier du poisson soluble.
- Vásquez, F. (2014). Elementos para una lectura del libro álbum. *Enunciación*, *19*, 333-345.
- Zaparaín, F. eta González, L.D. (2010). *Cruces de caminos. Álbumes ilustrados: construcción y lectura*. Valladolid: Universidad de Valladolid/Universidad de Castilla-La Mancha.

## 7.1. Aztertutako korpusa


- Alejandro, R (2017). *Ximunen baratzea.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Añorga, P. eta Mitxelena, J. (2015). *Munstroek ere pixa egiten dute ohean.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Ballesteros, X. eta Somá, M. (2016). *Hiru txerrikumeak.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Blake, Q (2016). *Angelika milapatrikaren patrikak.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Desbordes, A. eta Martin, P.(2015). *Nire Maitea.* Donostia: Ttarttalo
- Dipacho (2015). *Bi txori.* Donostia: Ttarttalo
- Donaldson, J. eta Scheffler, A. (2017). *Grufaloaren alaba.* Madrid: Bruño
- Lionni, L. (2017). *Alex eta sagu mekanikoa.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Martinez, I. eta Goñi, L. (2016). *Zerua gris dago.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Mckee, D. (2017). *Elmer elurretan.* Donostia: Erein
- Murphy, J. (2016). *Bost minutuko lasaialdia.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Portis, A. (2017). *Ez da kaxa bat.* Arre (Nafarroa): Pamiela.
- Rodari, G.eta Sanna, A. (2017). *Ipuinak nahasten.* Arre (Nafarroa): Pamiela
- Timmers, L. (2017). *Belea.* Alzira: Algar.
- Waddell, M.- Benson, P.(2017). *Hontz Kumeak.* Arre (Nafarroa): Pamiela

# 8. ERANSKINAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **TITULUA:** Hontz Kumeak | | | | | |
| **IDAZLEA:** Martin Waddell<br>**ILUSTRATZAILEA:** Patrick Benson | | | | | |
| **Itzulpena** | | **Edizio urtea. Herrialdea. Hizkuntza** | **Itzulpenaren urtea** | **Sariak** | |
| Bai | | 1992 / Ingalaterra /Ingelesa | 2017 | Bai | Ez |
| Oharrak | Itzultzailea: Manu López | | | | |

| **TESTUA** | | | |
|---|---|---|---|
| **Esplizitua** | | **Inplizitua** | |
| Bai | | | Ez |

| **IRUDIAREN ETA TESTUAREN ARTEKO HARREMANA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Simetria** | | **Hedapen edo erlazio gehigarria** | | **Kontraesankorra** | |
| Bai | | | Ez | | Ez |

| **GRAFIA** | | |
|---|---|---|
| **Grafiak istorioa eraikitzen laguntzen du?** | | |
| Bai | | |
| **Erabilera estetikoa dauka?** | | |
| | Ez | |
| **Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremana** | | |
| Bereizia | | |
| **Funtzioak** | | |
| Enfasia eman | | |
| Oharrak: | Hiru kasutan baino ez da gertatzen | |

| **ILUSTRAZIOA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Sekuentzialitatea dago irudiei esker?** | | | | | |
| Bai | | | | | |
| **Orrialdeen antolaketari dagokionez, ilustrazioak:** | | | | | |
| Handiak | | | | | Eskuinean |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Oharrak: | Sekuentzialitatea ematen duten irudiak eskuinean dauden arren, bi orrialdeak erabiltzen dira eszena girotzeko. | | | | | | |
| **Erliebe edo ehundura desberdinak agertzen dira?** | | | | | | | |
| | | | | Ez | | | |
| **Zeintzuk dira erabiltzen diren koloreak?** | | | | | | | |
| **Kolore biziak** | | **Kolore leunak** | | **Kolore iluna** | | **Kolore gabea** | |
| | Ez | | Ez | Bai | | | Ez |
| Oharrak: | Baina protagonistak txuriak dira. | | | | | | |
| **Koloreekin jolasten da irudiei enfasia emanez?** | | | | | | | |
| | | | | Ez | | | |
| **Gaiaren araberako koloreak erabiltzen dira?** | | | | | | | |
| Bai | | | | | | | |
| Oharrak: | Basoko iluntasuna eta bakardadearen beldurra islatzen ditu. | | | | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **PARATESTUAK** | | | | | |
| **Azaletik hasten da istorioa?** | | | | | |
| | | | Ez | | |
| **Izenburua eta azaleko ilustrazioa bat datoz?** | | | | | |
| Bai | | | | | |
| **Kontrazalak ematen dio bukaera istorioari?** | | | | | |
| | | | Ez | | |
| **Formatoa** | | | | | |
| **Apaizatua** | | **Karratua** | | **Berezia** | |
| Bai | | | Ez | | Ez |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GAIA** | | | | | | |
| Sentimendu edo emozioak | | | | | | |
| Oharrak: | Amaren faltak sortzen duen beldurra eta bakardade sentzazio horri | | | | | |

| | |
|---|---|
| | aurre egiteko modu desberdinak erakusten dizkigu liburu honek. |

| **TITULUA: Belea** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **IDAZLEA: Leo Timmers**<br>**ILUSTRATZAILEA: Leo Timmers** | | | | | |
| **Itzulpena** | | **Edizio urtea. Herrialdea. Hizkuntza** | **Itzulpenaren urtea** | **Sariak** | |
| Bai | | 2017/ Holanda/ Nederlandera | 2017 | | Ez |
| Oharrak | Itzultzailea: Gerardo Markuleta | | | | |

| **TESTUA** | | | |
|---|---|---|---|
| **Esplizitua** | | **Inplizitua** | |
| Bai | | | Ez |

| **IRUDIAREN ETA TESTUAREN ARTEKO HARREMANA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Simetria** | | **Hedapen edo erlazio gehigarria** | | **Kontraesankorra** | |
| | Ez | Bai | | | Ez |

| **GRAFIA** | | |
|---|---|---|
| **Grafiak istorioa eraikitzen laguntzen du?** | | |
| | Ez | |
| **Erabilera estetikoa dauka?** | | |
| | Ez | |
| **Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremana** | | |
| | Bateratua | |
| **Funtzioak** | | |
| | | Besteak |
| Oharrak: | Ez dauka funtzio berezirik | |

| **ILUSTRAZIOA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Sekuentzialitatea dago irudiei esker?** | | | | | |
| Bai | | | | | |
| **Orrialdeen antolaketari dagokionez, ilustrazioak:** | | | | | |
| Handiak | | Erdigunean | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Oharrak: | Nahiz eta irudi gehienak erdialdean egon, hasierakoa ezkerraldean kokatzen da eta azkena berriz eskumako aldean. Honekin sekuentzialitatea indartzen du istorioari hasiera eta amaiera emanez. | | | | | | |
| **Erliebe edo ehundura desberdinak agertzen dira?** | | | | | | | |
| | | | | Ez | | | |
| **Zeintzuk dira erabiltzen diren koloreak?** | | | | | | | |
| **Kolore biziak** | | **Kolore leunak** | | **Kolore iluna** | | **Kolore gabea** | |
| Bai | | | Ez | | Ez | | Ez |
| Oharrak: | Orokorrean kolore biziak erabiltzen ditu bele beltzarekin aldea nabarmentzeko. | | | | | | |
| **Koloreekin jolasten da irudiei enfasia emanez?** | | | | | | | |
| Bai | | | | | | | |
| Oharrak: | Koloreak gehiago nabarmendu daitezen fondo txuri batean pasatzen da istorioa. | | | | | | |
| **Gaiaren araberako koloreak erabiltzen dira?** | | | | | | | |
| Bai | | | | | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **PARATESTUAK** | | | | | |
| **Azaletik hasten da istorioa?** | | | | | |
| | | | Ez | | |
| **Izenburua eta azaleko ilustrazioa bat datoz?** | | | | | |
| Bai | | | | | |
| **Kontrazalak ematen dio bukaera istorioari?** | | | | | |
| | | | Ez | | |
| **Formatoa** | | | | | |
| **Apaizatua** | | **Karratua** | | **Berezia** | |
| Bai | | | Ez | | Ez |
| Oharrak: | Lineala da istorioa, eta goi tentsioko kable baten bidez ematen dio lotura. | | | | |

| **GAIA** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Egoera edo arazo sozialak | | | |
| Oharrak: | Desberdina izateak ekarri ditzakeen sufrimendua eta onurak erakusten ditu, elkarren beharra dugula eta sentimenduak ditugula adieraziz. | | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **TITULUA:** Ipuinak nahasten | | | | | | |
| **IDAZLEA:** Gianni Rodari<br>**ILUSTRATZAILEA:** Alessandro Sanna | | | | | | |
| **Itzulpena** | | **Edizio urtea. Herrialdea. Hizkuntza** | **Itzulpenaren urtea** | **Sariak** | | |
| Bai | | 2003/ Italia / Italiera | 2017 | | Ez | |
| Oharrak | Itzultzailea: Fernando Rey | | | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **TESTUA** | | | |
| **Esplizitua** | | **Inplizitua** | |
| Bai | | | Ez |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **IRUDIAREN ETA TESTUAREN ARTEKO HARREMANA** | | | | | |
| **Simetria** | | **Hedapen edo erlazio gehigarria** | | **Kontraesankorra** | |
| | Ez | Bai | | | Ez |

| | | |
|---|---|---|
| **GRAFIA** | | |
| **Grafiak istorioa eraikitzen laguntzen du?** | | |
| Bai | | |
| **Erabilera estetikoa dauka?** | | |
| Bai | | |
| **Grafiaren eta irudiaren arteko kokapen harremana** | | |
| | Bateratua | |
| Oharrak: | Orokorrean bateratua da baina batzuetan nahastuta dagoela ikus daiteke. | |
| **Funtzioak** | | |
| Enfasia eman | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ILUSTRAZIOA** | | | | | |
| **Sekuentzialitatea dago irudiei esker?** | | | | | |
| Bai | | | | | |
| **Orrialdeen antolaketari dagokionez, ilustrazioak:** | | | | | |
| Handiak | | | Zentratua ez daudenak | | |

| **Erliebe edo ehundura desberdinak agertzen dira?** | |
|---|---|
| | Ez |

| **Zeintzuk dira erabiltzen diren koloreak?** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kolore biziak** | | **Kolore leunak** | | **Kolore iluna** | | **Kolore gabea** | |
| Bai | | | Ez | | Ez | | Ez |
